

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5829

*EBAZPENA, 2021eko urriaren 28koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egingo baitira 513/2017 Errege Dekretuaz araututako suteen kontrako babes-instalazioen eremuan zenbait alderdi garatzeko agindu-proiektua egiteko prozeduran.*

2021eko irailaren 13an sinatutako aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak erabaki zuen 513/2017 Errege Dekretuaz araututako suteen kontrako babes-instalazioen eremuan zenbait alderdi garatzeko agindu-proiektua egiteko prozedura hastea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera eta bete beharreko gainerako legeen arabera.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan agindutakoaren arabera, eta hasteko aginduaren xedapenetan adierazi bezala, herritarren eskubide eta interes legitimoak ukitzen dituzten xedapenei entzunaldiaren izapidea egin behar zaie, bai eta izaerarengatik hala behar duten gainerako xedapenei ere. Bestetik, manu horren bigarren apartatuan, adierazita dago nola egin daitekeen entzunaldi hori: zuzenean, edo eraginpean hartuta dauden herritarrak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarten bitartez –zeinek legez onartuta egon behar baitute–, baldin eta erakunde eta elkarte horien helburuek xedapenaren xedearekiko lotura zuzena badute.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, «arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketek ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei».

Manu horiek betetzeko, agindu-proiektua egiteko prozedura hasteko aginduan, egin beharrezkotzat jo zuten entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea, izapidetzen ari den arauan ahalik eta eragile gehienen parte-hartzea bermatze aldera.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluekin eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23koa 68/2021 Dekretuarekin bat etorriz, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egitea 513/2017 Errege Dekretuaz araututako suteen kontrako babes-instalazioen eremuan zenbait alderdi garatzeko agindu-proiektuari, hogeit egun baliouduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, agindu-proiektuaren testua eskura jarriko da bai formatu fisikoan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzan (Vitoria-Gasteiz, Donostia kalea 1, Lakua I, O eraikina, 5. solairua, F gunea), bai formatu elektronikoan Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)) eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean.

Halaber, epatu egiten dira xedapenaren xedearekiko lotura zuzena duten eta ukitutako pertsonak biltzen edo ordezkatzten dituzten erakunde eta elkarteak, baldin eta legez aitortuta badaude.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 28a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.